

hitzok banan bana irakurri ditu. Berrogetahamazortzi hizdun zerrenda. Egin zaizkion oharrez zenbait ikutu ondorean onartzen da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-V-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko maiatzaren 30ean, arratsaldeko lauretan, bildu dira: L. Villasante buru A. Arrue, X. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak: F. Artola, J. Berrojalbiz, J. Fernández Setien, J. Garmendia, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, A. Zatarain, J. Zaitegi eta J. M. Zumalabe laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Dassance, Haritschelhar, Larzabal eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Apirileko agiria onartu da.

a) *Har-emanak*:

Idazkariak, aditzera eman du, igaztik tratuetan ginen euskararen sozio-linguistikazko estudio sakon bat bideratzeaz, hil honen 22an tratua loturik gelditu dela Euskaltzaindia, Siadeco eta Lankide Aurrezkiaren artean. Honek jartzen dituela lau miloi eta berrehun mila pezeta Siadeco gure babespean eta zuzendaritzapean bi urteren epean lana burutzeko. Lan hau, bere sakontasunean, Euskaltzaindian orain arte egin duenik garrantzizkoena izango dela gure hizkuntzaren egizko egoera zehatz aztertzeko eta hobekuntzen bideak irekitzeko. Kontratua lotzen duten lau folioak irakurri ditu. Kondizioak izenpetzen dituztenak, Euskaltzaindiaren partetik: L. Villasante, J. San Martin eta J. L. Lizundia; Lankide Aurrezkiaren (Caja Laboral Popular): Jabier Erdozia; eta Siadeco-ren partetik: Jabier Agirre jaunak. Oraindik lana

bukatu arte, izango diren har-emanen gainetik, hileroko bilkura bat izango da eta batzarrak J. L. Lizundia izendatzen du batzar horietara Euskaltzaindiaren ordezkari bezala joateko, Batzarrean erabiliko den gaiaren arabera eskatzen duen erara berak beste batzordeko bati ere dei egingo dio, gaiak horrela eskatzen duenean.

Arrasaten martxoaren 29an B eta D mailako irakasle titulurako egin diren esamenen berri eman da. Ongi pasatu dutenen zerrenda hau da: B mailan: Jose Ramón Etxebarria Bilbao, Joxe Llerandi Salinas, Rikardo Badiola Uriarte, Juan Antonio Letamendia, Jose Agustin Arrieta, Jazinto Iturbe, Juan Luis Goikoetxea Arrieta, Erramun Gerrikagoitia, Hendrike Knörr, Koldo Izagirre Urreaga, Andolin Eguzkitza, Ana Elgezabal, Xalbador Unzueta Mitxelena, Antxon Narbaiza, Mikel Ugalde, Jon Urrujulegi, Juan Martin Elexpuru Arregi, Jerardo Elortza, Antton Aranburu Bengoetxea, Gonzalo Fontaneda, Juan Jose Uranga Segurola, Jesus M.^a Mendizabal Iraola, Iñaki Lerga Idozin, Mikel Zuazabeitia Errasti, Jose Mari Velez de Mendizabal Azkarraga, Julian Angel Zabalo Bilbao, Inmaculada Murgoitio Ugaldea, Andres Alberdi Gorostiaga, Juan M.^a Artola Kortajarena.

D mailan: Ixidor Iribar, Elena Nabarro Loidi, Lourdes Ugarabe Olañeta, Idoia Lizarralde, Pili Urizar Azkarate, Arantzazu Narbaiza Erdabide, J. Jokin Gallastegi, Nekane Sanmiguel, M.^a Rosario Lasa, Begoña Iturbe, Xabier Arzelus, Izaskun Pujana.

E. G. B.-ko irakasleentzat euskarazko irakasle titulua ere lortzeko kursilloak eta esaminak antolatzearen eskaria egiten digu Iruñeko udaletxeak Satrustegi jaunaren bidez. Hiri berean abuztuaren 25etik irailaren 6ra arte antolatzea erabaki da.

Herri hizkuntzen alde Educación y Ciencia Ministerioak eman duen dekretoa euskararentzat ongari izan daiteke. Lehen pauso hau ongi ikusten da, baina dekretoa bera publikatzen denean ikusiko dugu asmo zehatza. Dena dela, hastapen hau pozik hartu da.

G. Aresti euskaltzain laguntzaile jaunak Basurtuko ospitalean ebakuntza izan duela eta laster sendatzeko gure gogo ona azalduaz gutun bat idaztea erabaki da.

A. Tovar jaunaren gutuna, ohorezko izendapenagatik eskerrak emanaz. Lehenago erantzutea ezina izan zaiola, herbestetik ibilia delako.

Jean Louis Davant jaunaren gutuna, euskaltzain izenda-tzeagatik eskerrak emanez.

Institución "Principe de Viana"ren zuzendariari egin zaion gutuna irakurri da, Nafarroarako Euskaltzaindiaren ordezkartza bulegoa jartzearen eskariz.

Bilboko udaletxeak 200.000,— pezetako dirulaguntza eman du eta eskerrak ematea erabakitzen da.

Arrue jaunak kontu eman du, Gipuzkoako Junta de Cooperación Cultural-ek, hil honen 15ean egin duen batzarrean, euskararen laguntzarako 1.000.000,— pezetako asignazioa egin duela.

Etxegintza hiztegiaren batzordekoak bilkura bat egin dute eskuartearen duten lana bultzatzeko.

Gau eskolen elkartekoak beren plangintzazko txosten bat bialdu dute eta batzarrean irakurri da: lanaren koordinazioa, erabiliko dituzten irakaskintza metodoak, berriak emango dituen hileroko orri multikopiatuak aldizkari gisa, eta abar. Urtearen burutzean beren lanaren memoria agerreraiz.

Hartu diren liburuak:

Azpeitia-tar Julene andereak emana bere *Zuentzat* izeneko liburua; Jakin argitaldaria bidalia Elkar lanean egindako *Marx eta Jesus Europan*; Arrasateko Escuela Profesional Politécnica delakoak Xabier Zubizarreta eta Mikel Mourgiart jaunek egin duten *Euskal metodologiari eta euskara batuari buruzko ikertzeak - Investigaciones en torno a la unificación del euskara y su enseñanza* lana; Bizkaiko eta Leintz aldeko Alfabetatze Batzordekoek, berek gertatu duten *Alfabetatzen* liburua, Cinsa-k argitaratua; Editorial Verbo Divino-k emana, J. Fdez. Setien-ek egin duen *Haurraren Biblia*; Gordailu argitaldaria emana J. L. Lizundiaren *Euskal Herria eta inguruko euskal lurralde oihak* izeneko Puzzle geografikoa; "Iker" argitaldaria emana Sebero Altuberen *Erderismos* (argitalpen berria); Juan San Martinek bere *Elqueta con Anguiozar y Ubera* monografia; Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-

Navarro-ren Gipuzkoako ordezkariak Carlos Sanbricio-ren *Silvestre Pérez, arquitecto de la Ilustración*; Rikardo Badiola Euskalduntzen taldekoak emana *Libros Españoles. Catálogo ISBN* (International Standards Book Number) 1973 eta 1974; Irigaray jaunak *Noticias bio-bibliográficas del vascólogo y etnólogo Wentworth Webster*, "Fontes Linguae Vasconum" en separata. Guztiei eskerrak ematea erabakitzen da.

b) *Goizeko bilkuraren berri:*

Goizean, euskaltzain osoen bilkuran, Julena Azpeitia, Madaleine Jauregiberry eta Robustiana Mujika "Tene" emakumeak ohorezko izendatu dira, arautegiaren 39. artikulua-
ren arabera.

Laguntzaile berriak izendatzeaz ere hitz egin da eta arautegiaren 38. artikulua-
ren arabera urrengo batzarrerako proposamenduak ekartzea erabaki da.

8 urte arteko ikastola hiztegiaren 18. eta 19. zerrendak aztertu ondorean onartu dira, eta 20. zerrendaren zati bat.

d) *Oskodun baten izenaz:*

Piarres Lafitte jaunaren txostena, oskodun baten izenaz. Miarritze eta Baionako aho-xuri batzuk beren elkarte izenez, frantsesez, "Les chevaliers de l'opérne" hartu dute, eta "opérne" delako honen nondikakoa aztertzen du. Hitz hori ez da Lapurdiko itsas-bazterrean erabilia. Kaskoinean agertzen da "opérne" hitza, euskaraz "lanperna" eta "anperna" erraiten dena. Hain xuxen grekoz eta latinez "perna" deitzen zutena. Gero lehen letra horiei buruzko eritziak agertzen ditu eta bertze norbaitek hobeki argi baleza auzi xume hori, bere usteak hor eskaintzen ditu.

e) *Sinetsi aditzaren erabilkera batzuk aztertuz*

Luis Villasante jaunak Sinetsi aditzaren erabilkera batzuk aztertzen ditu. Gaurko idazle batzuk zelan erabiltzen duten eta lehengo idazle zaharrak zelan erabiltzen zuten. Idazle zaharren argira inesivoa zelan agertzen den adiarazten du, eta oraingo askok nola kentzen duten. Eta, jatortasunari eusteko bere ustez erarik egokienak zeintzuk diren markatzen du.

f) *-Tasun eta -keria atzizkiak*

Ambrosio Zatarain jaunaren txostena, “-tasun” eta “-keria” atzizkien erabilkera jatorrari buruz. Hontaz bildu dituen agiriak adierazten ditu honako eritzi hauetara heltzeko: 1.º) *-tasun* izateari dagokiola: apaiztasuna = apaiz izatea; gaiztotasuna = gaizto izatea; 2.º) *-Keri(a)* egiteari dagokiola: apaizkeri bat egin du; gaiztakeri asko egin du. Beraz, inola ere ontzat eman ezinezkoa, “gaiztotasun bat egin du” eta “gaiztakeria handiko gizona da” esatea da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-VI-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko ekainaren 27an, arratsaldeko bostak laurden gutiagotan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, X. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; Julene Azpeitia, Madeleine Jaureguiberry, Tene Mujika euskaltzain ohorezko andereak; L. Akesolo, B. Arregi, P. Arregi, J. Berrojalbiz, N. Etxaniz, J. Fz. Setien, J. Garmendia, S. Garmendia, I. Goikoetxea, X. Kintana, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, J. Zaitegi, M. Zarate, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe jaun-andere laguntzaileak, J. San Martin idazkari dela.

J. M. Barandiaran, L. Dassance, J. L. Davant, E. Erkiaga, Aita P. Iraizozkoa, M. Lekuona, P. Larzabal, L. Mitxelena, A. Zavala jaun euskaltzainak eta M.^a Milagros Bidegain eta Karmele Esnal andereño laguntzaileak ezin etorria adiarazi dute.

Gaurko Batzar hau, hiru andere ohorezkoen omenez denez, irekia da eta ehunen bat lagun bildu dira, euskaltzainditik kanporakoak, hauen arteko Olaizola diputatu jauna eta Aperribai Debako alkate jauna.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.